

Aurreko guztian eta urte hauetako funtzionamenduan izandako esperientzian oinarrituta, Estatutuen aldaketa zabaldu egin nahi da; era honetan, berriz adierazten dugu nahi dugula Mankomunitatea izatea bera osatzen duten entitateen parte hartzea eta guztien interesak bideratuko dituen; era berean, Estatutu hauetan eta Legerian aurreikusten den moduan, elkartutako udalen artean ekonomikoki, teknikoki eta administratiboki lagundu eta elkarlanean aritu ahalko da.

SAKANAKO MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

1. artikulua. Eranskinean zerrendatzen diren Udalek osatzen dute Mankomunitatea; horrela, Estatutu hauetako II. kapituluaren adierazten diren bere eskumeneko zerbitzuak batera antolatu eta eskaintzeko.

Kide berrien onarpena estatutuak arauen arabera egingo da.

Mankomunitate honen antolaketa eta funtzionamendurako ondoko hauei atxikiko zaie: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legea, Toki Araubidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legea eta Toki Entitateei ezarritako legeak eta arauak xedapenak.

2. artikulua. Izaera Juridikoa. Mankomunitate honek, toki entitatea den aldetik, izaera eta ahalmen juridikoak edukiko ditu bere helburuak lortzeko.

3. artikulua. Izena eta helbidea. Toki entitate honen izena Sakanako Mankomunitatea izango da. Egoitza Lakuntzan kokatuko da, zerbitzuen administrazioarako egoitza elkarturiko edozein udalerritan egon badaiteke ere.

4. artikulua. Mankomunitatearen hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira.

Elkarturiko udalerrietako biztanle guztiak eskubidea edukiko dute Mankomunitatearekiko harremanetan euskara edo gaztelania erabiltzeko eta aukeratutako hizkuntzan kasu egiteko. Eskubide hau bermatzeko, Mankomunitateak neurri egokiak eta beharrezko bitartekoak jarriko ditu.

Baliogarriak izango dira eta eraginkortasun juridiko osoa edukiko dute aukeratutako hizkuntzan egindako administrazioari jarriko orok.

Mankomunitatean, Euskararen Erabilpena Normalizatzeko Plana egingo da.

II. KAPITULUA

Xedea

5. artikulua. Udalen eskumeneko zerbitzuak izanik, elkarturiko udalek Mankomunitateari delegatzen dizkieten eta honek onesten dituen ondoko zerbitzuen gestioa eskainiko du:

- 1.–Ur edangarria, estolderia, ur zikinen saneamendua eta arazketa.
- 2.–Hiri hondakin solidoen bilketa, tratamendua eta probetxamendua.
- 3.–Etxebizitzak zaharbertzeko Bulegoa.

4.–Elkarturiko udalerrietan; kirol, gazteentzako, eta ekitaldi soziokulturalak planifikatu, antolatu, sustatu, garatu eta koordinatzea, bai zuzenean bai udalekin elkarlanean, betiere herri bakoitzeko ekitaldiak errespetatuz. Xede horri begira, zerbitzu horiei dagozkien udaletako instalazioak sustatu, eraiki, kontserbatu, konpondu edo administratu ahalko ditu, horretarako dagozkien Udalarekin beharrezko hitzarmenen bidez. Dena den, eginkizun horiek Mankomunitateak, zuzenean, egin ahal izango ditu, bere kirol eta gizarte nahiz kultur instalazioetan. Mankomunitateak eskaintzen dituen kirol, gazteentzako eta kirol nahiz gizarte arloko jarduerak egiteko Administrazio Publiko ezberdinek ezarritako laguntza eta dirulaguntzak lortzeko eskaerak gestionatu ahalko ditu.

5.–Kide den udal batek baino gehiagok erabili ahal duten langile, bitarteko eta zerbitzuen kontratazioa.

6.–Euskararen normalizazioa, egungo egoera diglosikoa zuzentzeko. Xede horretarako Mankomunitateak zerbitzu teknikoak eskaini ahalko du ondoko helburuetarako:

a) Euskara, gure herriaren funtsezko osagaia denez eta bizilagun guztiak modu egokian ezagut dezaten, beharrezko bitartekoak jarriko dira arlo ezberdinetan lanean ari direnei laguntzeko.

b) Urratsak eman euskaldunek, gizarte arlo guztietan, euskara erabili ahal dezaten.

c) Euskararen erabilpena normalizatu udaletan eta beren menpeko erakunde eta zerbitzuetan.

d) Aurreko helburuen inguruan, udalei dagozkien esparru juridikoa egokitu; era berean, gainontzeko administrazioei, herri eta giza-erakunde eskaera egin helburu bera lor dezaten.

e) Euskara normalizatzeko lanean ari diren eskualdeko gizarte eragileekin koordinazioa estutu helburu hauek lor ditzaten.

f) Aurreko helburuak lortzeko, zuzenean edo zeharka, beharrezko ekinbideak garatuko dira, zerbitzuak antolatu eta hala bada ordenantzak onetsiko dira.

7.–Turismoa sustatu eta garatu.

8.–Sakanako eskualdearen garapen integrala sustatu; xede horretarako, egoki irizten diren garapen lokaleko estrategiak landu eta egingo dira, beharrezkoa balitz eskualdeko garapen agentzia bat osatuko litzateke.

9.–Eskualdeko edo herrietako euskarri ezberdinetako komunikabideak sustatu eta editatu: prentsa, irratia eta telebista analogikoa edo digitala.

6. artikulua. –Aurreko artikuluan ezarritakoak izan ezik, Mankomunitateak, bere titularitatea aldez aurretik hartuta, ondoko arloetan hartu ahalko ditu udaletako eskumenak:

1.–Etxebizitzak sustatu eta gestionatzea; parke eta lorategiak, herrietako kale publikoen zoladura eta bideen kontserbazioa.

2.–Ondare historiko-artistikoa.

3.–Ingurumena zaintzea.

4.–Hornidura-azokak, hiltegiak, azokak, merkatuak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa.

5.–Hilerriak eta hileta-zerbitzuak.

6.–Bideak garbitzea.

Udalen eskurantzaren barneko edozein zerbitzu uztea eta Mankomunitateak bere gain hartzea, hitzarmen bidez formalizatuko da; horretarako, dagozkien udaleko osoko bilkurak eta Mankomunitatearen Batzarre Orokorrak onetsi beharko dute. Hitzarmen horretan zerbitzua eramateko modua, ardura ekonomikoak, kontabilitatea, e.a. zehaztuko dira.

7. artikulua. Mankomunitatearen eta gainontzeko administrazio publikoen arteko lankidetzak ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa, izenpetzen diren hitzarmen administrazio bidez garatuko da.

8. artikulua. Mankomunitate honen iraunaldia mugababea da eta indarrean sartuko da Estatutu hauek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren.

III. KAPITULUA

Lurralde eremua

9. artikulua. Mankomunitateak bere eskumenak baliatu ahal dituen lurralde eremua zerbitzuaren titularitatea dagozkionekoa izan da, ondoko mugapenaren arabera:

1) Udal mugapean kontzejurik ez duten Udalerrietan, Mankomunitatea behar den gaiaren gainean ezarritako eskumenen titularra izan da, eta udalerriri osoan baliatu beharko ditu.

2) Udal mugapean kontzejurik dituzten Udalerrietan, Mankomunitatea zerbitzuei dagozkien eskumenen titularra izan da Kontzejuen lurralde eremuetarako soilik:

a) Sakanako Mankomunitateak titularitatea 1990ko abenduaren 31n bere gain hartu zueneko Kontzejuen barrutietan.

b) Bestela, data horretan elkarturik egon gabe ere, ondorengo artikuluan ezartzen den eraentzaren bidez, gai baten gaineko eskumenen titularitatea mankomunitateak beretzat hartzeko eskatzen duten Kontzejuen barrutietan, betiere Mankomunitateak hala onartzen badu.

10. artikulua. 1. 1991ko urtarrilaren 1a baino lehen elkartu ez diren Kontzejuen kasuan, kokaturik daudeneko Udalerriko Udalak Mankomunitateak xedetzat dituen gaien arteko zenbaiten gaineko eskumenak Kontzejuen lurralde eremurako beretzat hartzea eskatu ahalko dute.

2. Aurreko atalak aipatzen duen eskumenak beretzat hartze horri buruzko erabakia Batzarre Nagusian hartuko da, arauzko gehiengo absolutuaren aldeko botoaz.

II. TITULUA

Mankomunitatearen antolamendua

I. KAPITULUA

Xedapen orokorra

11. artikulua. Mankomunitatearen Gobernu eta Administrazioa ondoko organoei dagozkie:

Mankomunitateburua eta Mankomunitateburordea.

Batzarre Nagusia.

Gobernu Batzorde Iraunkorra.

Arautegi Organikoaren bidez, aurrekoen organo osagarriak ezarri eta arautu ahalko dira.

II. KAPITULUA

Batzarre Nagusia

12. artikulua. Batzarre Nagusia Mankomunitatearen organo gorena izango da, eta Estatutu hauetan sartutako eskumen eta eskuduntzak eta arautegi juridikoak onartzen dizkionak edukiko ditu.

13. artikulua. Mankomunitatearen Batzarre Nagusia elkarturiko udaletako ordezkari hautatuek osatuko dute. Ondoko arauak aplikatutakoan zenbat batzarkide gertatu, hainbestek osatuko dute Batzarrea:

a) Elkartutako udal guztiek, ordezkari bat edukiko dute gutxienez; horrez gain ordezkari bat egokitu zaie mila biztanleko edo frakzioko, zentsuko eskubidezko biztanleen lehen milakoa gainditzen dutenen kasuetan.

b) Mankomunitatean elkartutako udaletako ordezkari kopurua aldatzeko, kontuan hartuko da udalbatzak berritzeko egiten diren udal hauteskunderen urtean, urtarilaren 1ean, zentsuan dagoen biztanleria.

Batzarre Nagusiko ordezkarien izendapena elkartutako udalen osoko bilkurek egingo dute; horretarako, udal hauteskundeak egin eta udalbatza berriek kargua hartu eta bi hilabeteko epea izango da. Udaletako ordezkariak izendatzeko erabakian bertan ordezkariak izendatu beharko dira. Batzarkide titularrak falta denean, ordezkari ahaliko dute deituak izan diren bilkura edo batzarre guztietan, eta Mankomunitatearen edozein organotako kide modura batzarkideak dituen eskubide guztiak edukiko dituzte.

14. artikulua. Batzarkideen kargu uztea, oro har, ondorengo arrazoiengatik gertatuko da:

a) Beren udalbatzako kide izateagatik zuten agintaldia betetzean. Horrela izanez gero, Batzarre Orokorreko kide diren aldetik lanean jarraituko dute beren ondorengoak karguaz jabetu arte. Dena dela, barririk administrazio arruntaz arduratuko dira eta bitarteko epe horretan ez da erabakirik hartzen ahaliko gehiengo kualifikatua behar bada horretarako

b) Epaia judizial irmoagatik, heriotzagatik, ezgaitasunagatik, Udaleko zinegotzi karguari edo Mankomunitateko Batzarkide karguari uko egiteagatik.

15. artikulua. Batzarreari ondoko eskurantzak dagozkie:

1.–Mankomunitateburua hautatu eta kentzea; horretarako zentsura mozioa beharko da edo berak planteatutako konfiantza aferaren bozketak, hauteskunde lege orokorraren arabera.

2.–Mankomunitatearen gobernu organoen jarduerak zein Elkarte Kudeatzailearenak kontrolatu eta fiskalizatu.

3.–Organo ez kontzentratuak sortu, egoitzaren kokapena aldatu, Mankomunitatearen izena edo logotipoa aldatu.

4.–Arautegi Organikoa onetsi, baita Mankomunitatearen eskumeneoak diren beste xedapen orokor guztiak ere

5.–Zerga izaerako bere baliabideen zehaztapena, aurrekontuen onspena eta egokitzapena, bere eskumeneko gaitako gastuen bideratzea eta kontuen onspena.

6.–Zerbitzu publikoak eta udaletako espedienteak gestionatzeko moduak onetsi.

7.–Beste Administrazio Publiko batzuek egindako eskumeneen delegazioa edota banaketa onartzea.

8.–Plantilla organikoaren onspena, lanpostuen zerrenda, funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldikakoak eta behin-behineko langileen kopurua eta erregimena zehaztea.

9.–Egintza administratibo eta judizialak bideratzea eta Mankomunitateko Batzarreari dagozkion gaietan defendatzea.

10.–Beste Administrazio Publikoekin lankidetzak eta koordinazio hitzarmenak onestea.

11.–Mankomunitateko egintzei kaltegarritasuna adieraztea.

12.–Ondare publikoen kalifikazio juridikoa aldatzea.

13.–Kreditu edo berme eragiketarako erabakitzea, zenbatekoa baliabide arrunten % 5a baino gehiago denean kitapen eta atzerapenen baimenak ematea eta kredituen errekonozimendu ez judiziala, betiere aurrekontuan partidarik ez dagoenean.

14.–Mankomunitateburuari dagokionean izan ezik, obra, zerbitzu eta hornidurak kontratatzea.

15.–Obra eta zerbitzu proiektuak onartzea bere kontratazio edo kontzesiorako eskuduntza duenean, eta aurrekontuan oraindik aurreikusitako gabe daudenean.

16.–Mankomunitateburuari dagokionean izan ezik, ondasunak eskuratzea eta besterentzea.

17.–Onartzeko gehiengo berezia eskatzen dutelako Batzarreari dagozkion beste guztiak.

18.–Legeek espresuki ematen dizkietenak.

16. artikulua. Batzarreak bere eskurantzari zeinahi delegatu ahal du, osoki edo zati baten, Mankomunitateburuarengan edo Gobernu Batzordearengan, onartzeko gehiengo berezia behar dutenak kenduta.

17. artikulua. Batzarre Nagusia bilkura publikoan eratuko da, udal hauteskundeak egin eta ondorengo hiruhilabeteko epean, eta urtean hiru aldiz bilduko da gutxienez.

Halaber, egoki irizten diren osoko bilkurak egin ahaliko dira, Mankomunitatearen Batzarre Nagusiko buruak deituta edo ordezkarien laurdenak eskatuta.

18. artikulua. Osoko bilkuretara Sozietate edo Sozietate Kudeatzailearen burua eta gerentea bertaratu dira, azken horiek hitza dutela baina botorik gabe.

19. artikulua. Osoko bilkurarako deia zazpi egun lehenago egin beharko da. Deialdian, bilkura egingo den eguna, ordua eta tokia jakinaraziko dira. Deialdian eguneko gai-zerrenda sartuko da; horrela ordezkariak aztertu ahaliko dituzte ukituko diren gaiak, eta behar den dokumentazioa ordezkarien eskura izango da Mankomunitateko bulegoetan, deialdiaren datatik aurrera.

III. KAPITULUA

Mankomunitateburua

20. artikulua. Mankomunitateburua, Batzarrea eratzekeo bilkuran hautatuko da, ondoko prozeduraren arabera:

a) Kargua hartzeko aukera beren hautagaitza aurkezturiko batzarkide guztiek izan dezakete.

b) Haietako batek batzarkideen botoen gehiengo absolutua eskuratzeko badu hautatutza hartu izanen da.

c) Baldin eta inork ere gehiengo absolutua eskuratu ez badu, bigarren bozketak egingen da, eta hautatutza hartuko da botoen gehiengo soila eskuratu duena.

d) Botoetan berdinketa gertatuz gero, hautatutza hartuko da biztanle gehien duen Entitatearen ordezkariak duena.

e) Baldin eta boto kopuru bera eskuratu duten zenbaitek biztanle gehien duen Entitatea ordezkatzeko badute, udal horretako herritarren boto gehienak bildu dituenaren alde erabakiko da.

21. artikulua. Mankomunitateburuak Gobernu Batzorde Iraunkorreko partaideen artean libreki izendatu eta kargutik kenduko du Mankomunitateburuordea.

Mankomunitateburuordearen eginkizuna Mankomunitateburua bere funtzio guztietan ordezkatzeko izanen da, ausentzia, eritasun edota bere eskurantzak burutzea eragozten dion edozein karia, hala nola Mankomunitateburutza betegabe den guztietan, Mankomunitateburu berriak kargua hartu artean.

22. artikulua. Mankomunitateburuak ondorengo eskurantzak izanen ditu:

1.–Entitatearen gobernu eta administrazioa zuzendu.

2.–Mankomunitatea ordezkatu.

3.–Mankomunitatearen organo guztien batzaraldiak deitu eta haietan mahaiburu izan.

4.–Mankomunitatearen zerbitzu eta obrak zuzendu, aztertu eta bultzatu.

5.–Aurrekontuen proiektua eratu, idazkariak eta kontu-hartzaileak lagunduta, eta urteroko azaroaren 1eko Batzarre Nagusian aurkeztu.

6.–Gastuak erabaki, bere eskurantzaren mugen barruan, eta ordainketak agindu, diru-sarrerarik eskatzen duten dokumentuak baimendu eta kontuak eman, hala nola onarturiko aurrekontuaren arabera kudeaketa ekonomikoa eta garapena aurrera eramanez.

7.–Lan eskaintza publikoa onartu Aurrekontuaren eta Batzarre Nagusiak onartutako plantillaren arabera, proben oinarriak onartu langileak hautatzeko eta lanpostuak hornitzeko lehiaketetan eta ordainsari osagarri ez finkoak eta aldikakoak banatu.

8.–Langile guztien buruzagitzak nagusia izango du, eta haien izendapena eta zigorrak erabakiko ditu. Horrez gain, Mankomunitateko funtzionarioak zerbitzutik kenduko ditu, eta lan kontratudunak kaleratuko. Halakoetan, horren berri emango du egiten den lehendabiziko bilkuran.

9.–Egintza judizial eta administrazioez arduratzea eta Mankomunitatearen defentsa bere eskurantzaren barruan, beste organo bati delegatutakoak ere, eta, urgentzia balitz, Batzarreari dagozkion gaietan ere. Hala izanez gero, horren berri emango du egiten den lehendabiziko bilkuran, Batzarreak berresteko.

10.–Mankomunitateburuari dagozkion gaietan kaltegarritasun adierazpena batzarreari proposatzeko ekimena.

11.–Pertsonalki, eta bere erantzukizunaren barruan, Mankomunitatearen interesetarako arrisku larria dagoen kasuetan beharrezko erabaki egokiak hartu, Batzorde Iraunkorri edo Batzarreari berehala horren berri eman behar diola, eskurantzaren banaketaren arabera.

12.–Autoritateari egindako desobedentzia faltak edo udal ordenantzak ez betetzeagatik zigortu, salbu eta ahalmen hori beste organo batzuei dago kienean.

13.–Obra, zerbitzuak eta hornidurak kontratatu, betiere zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten % 5a baino gehiago ez denean, bai eta

zenbateko hori handiagoa izanik ere, iraupena urtebetera iristen ez denean eta urteko aurrekontuan ageri direnak baino kreditu handiagorik behar ez denean. Halaber, urte bat baino gehiagorako kontratazioak haren eskumeneak izanen dira haien iraupena lau urte baino luzeagoa ez denean, baldin eta urte bakoitzean ordaindu beharreko kopuruen batura ez bada aipaturiko ehunekoak baino handiagoa. Ehuneko hori lehen ekitaldiko aurrekontuaren baliabide arrunten gainean hartu behar da.

14.—Obra eta zerbitzuen proiektuak onetsi, kontratazioa edo esleipena bere eskurantzaren barrukoan direnean eta Aurrekontuetan badaude.

15.—Ondasunak kostu bidez eskuratzea, betiere zenbatekoa aurrekontuaren baliabide arrunten % 5a baino handiagoa ez denean, bai eta kontratazio zuzenari aplikagarria zaion mugapen orokorra baino handiagoa ez denean ere.

Ondasunak besterenganatzea, betiere zenbatekoa aurrekontuaren baliabide arrunten % 5a baino handiagoa ez denean, bai eta kontratazio zuzenari aplikagarria zaion mugapen orokorra baino handiagoa ez denean ere.

Ondasunak doan eskuratzea.

16.—Mankomunitateko erabakiak argitaratu, bete eta betearazteko agindua eman.

17.—Arautegi Organikoak ematen ahal dizkion beste denak, hala nola Legeek Toki Entitateei, zein organori zehaztu gabe ematen dizkietenak.

18.—Halaber, Mankomunitateburuari dagokio Mankomunitateburordea izendatzea.

23. artikulua. Mankomunitateburuak bere eskurantzaren generikoak delegatu ahal ditu, Batzorde Iraunkorrean, organo kolegiatu gisa, zein bere edozein partaiderengan. Hala nola, delegazio berezituak egin ahal ditu edozein Batzarkideren alde, gai zehatzen zuzendaritzarako eta kudeaketarako.

IV. KAPITULUA

Gobernu Batzorde Iraunkorra

24. artikulua. Gobernu Batzorde Iraunkorra Mankomunitateburuak, organo honen buru izanen denak, eta batzordekideek osatuko dute, batzarkideak izanen baitira.

Batzordearen osaketa Batzarre Nagusian ordezkaturiko udalen proportzionaltasunari eta barruan osatutako alderdi politikoei egokitu zaie.

Gobernu Batzorde Iraunkorrari dagokio, Mankomunitateburuari laguntza etengabea emateaz gain, batzarreak edo mankomunitateburuak delegatu ahal dizkieten eskurantzaren guztiak. Halaber Arautegi Organikoaren bitartez bere esku utziko diren berriemate, diktamen, ikerketa eta kontrol funtzioak.

25. artikulua. Batzarrearen eta Menkomunitateburuaren eskurantzak, hala nola Gobernu Batzorde Iraunkorrarenak ere, halakoak izanen dira, zerbitzuen prestaziorako gestio organo berezituak edota sorturiko elkarteak edo merkataritza-elkarteak atxikiko zaizkien eskurantzei kalterik egin gabe.

V. KAPITULUA

Idazkaria

26. artikulua. Lanpostu honetan arituko dena Mankomunitateko funtzionarioa izanen da eta kargu hau hartzeko legeak toki entitateen funtzioen inguruan ezarritakoa bete beharko du.

Idazkariaren funtzioak honako hauek izango dira:

Mankomunitatearen gobernu organoen eta parte hartzen duen bestelako bilkuretako aktak egin.

Mankomunitatearen gobernu organoek hartutako erabakiak edo egin beharreko egintzak egiaztatuz, egintza eta erabaki guztien fedee-maila izanik.

Mankomunitatearen organoek aholku juridikoa eman, betiere txostena egitea derrigorrezkoa denean edo Batzarre Nagusiko kideen laurdenak hala eskatzen bada.

Orokorrean, toki entitatei buruzko legeak emandako eskurantzak bete.

III. TITULUA

Gobernu Organoen Funtzionamendua

27. artikulua. Mankomunitateko organo kolegiatuaren funtzionamendurako ohiko bilkurak eginen dira, aurretik ezarritako maiztasunez, eta aparteko bilkurak, premiazkoak ere izan daitezkeenak.

Bilkurak deitzeako eta burutzeko, foru legeek eta toki entitateetako arautegiak ezarritakoa beteko da.

28. artikulua. Erabakiak bertan diren partaideen gehiengo soilaz hartzen dira, ohiko arau gisa. Gehiengo kualifikatuaren aldeko botua

beharrezkoa izanen da Legeek edo Arautegi Organikoak hala eskatzen dutenean.

IV. TITULUA

Ondarea eta Zerbitzuak

I. KAPITULUA

Ondarea

29. artikulua. Mankomunitatearen ondarea jabego publikoko edota erabilpen edo zerbitzu publikorako destinatua diren mugiezina, hala nola legez ezaugarri hori atxikirik dutenak ere.

30. artikulua. Mankomunitatearen jabego publikoko ondareak dira erabilpen edo zerbitzu publikorako destinatua diren mugiezina, hala nola legez ezaugarri hori atxikirik dutenak ere.

31. artikulua. Mankomunitatean integratutako udalek, ondasun eta eskubidezko ondareak haren esku utzi beharko dituzte dohainik, halaber eskubide eta betebeharrak helarazi; horiek guztiak Mankomunitateak titularitatea beretzat hartzen dueneko zerbitzu bakoitzari lotuak dira.

32. artikulua. Mankomunitateak, bere ondasunekiko, Legeek Toki Entitateei era orokorrean eman dizkieten eskurantzak dauzka.

II. KAPITULUA

Zerbitzuak

33. artikulua. Mankomunitateak, bere xedeetarako diren zerbitzuen prestaziorako, kudeaketa zuzenaren eraentza ezarri ahal du organo baten edo organo berezitu batzuen bidez, edo merkataritza-elkarte bat edo gehiagoren bitartez, hauen kapital osoak Mankomunitatearen jabetzako izan beharko du, eta elkarte mugatu edo anonimo edo legebidez ezarritako beste edozein kudeaketa eredu hartu ahal izanen dute.

34. artikulua. Elkarturiko Entitateek Mankomunitateari txostena eskatu beharko diote, Mankomunitatearen egitekoak diren zerbitzuen prestazio aukerabideen gaineko hirigintza planeamendu bitartekoak onartu aurretik, bai eta irekiera eta sailkatutako jardueretarako baimenak eman aurretik ere.

V. TITULUA

Ogasuna

35. artikulua. Mankomunitatearen Ogasuna ondoko baliabideez hornituko da:

a) Bere ondarearen errendimendutik eta Zuzenbide Pribatutik sorturiko diru-sarrerak.

b) Zerbitzuen prestaziorako edo bere eskurantzaren barruko aktibitateak egiteko tasak. Hauen ezarpena eta ordainarazpena dagozkien ordenantza fiskaletan arautuko dira.

c) Prezio publikoak. Foru Komunitatearen eta Estatuaren tributuaren parte hartzetikoak.

d) Subentzioak eta Zuzenbide Publikoaren bidezko bestelako diru-sarrerak. Subentzioak ezin izango dira bideratu emanak izan ziren xedeetarako ez diren bestetara, salbu eta hala izatekotan, ematean aurreikusitako gabeko erabilpena luketen soberakin itzulezinezkoak.

e) Hitzartutako kreditu eragiketen emaitza.

f) Isun eta zehapenen emaitzak.

g) Elkarturiko entitateen gain ezar daitezkeen ekarpen generiko edo berezituak, irizpide objektibo eta proportzionaltasuneko arabera.

h) Zuzenbide Publikoaren bidezko beste prestazio guztiak.

i) Legez dagozkion beste edozein diru-sarrera.

36. artikulua. Mankomunitatearen diru-sarrerak, hauen ezarpena edo bilketa sortarazi zueneko zerbitzu edo jardueraren finantzaziotik eratorriko betekizunen garbitzeari atxekiak dira.

37. artikulua. 1. Mankomunitatean elkarturiko Udalek haren zorrak garbitzera behartuak dira, eskubidezko biztanlegoaren kopuruaren proportzioan, bere baliabide propioak aski ez direnean.

2. Mankomunitateari, elkarturiko Udalek eman beharreko ekarpenak zehazteko, hauek zehaztu beharko dute zein zerbitzu erabili nahi duten, zerbitzu bakoitzetik proportzionalki erator daitezkeen gastu orokorrak finantzatzeko eman beharreko ekarpenak ordaintzeari utzi gabe.

3. Mankomunitateak, Udalek ekarri beharreko diru kopuruaren ordetzko ordainketa egin dezan eskatu ahal du Nafarroako Gobernuari, elkarturiko udalaren kontura, Mankomunitateak eskatu eta Udalak ordaintzeari uko egin diotenean.

VI. TITULUA

Langileak

38. artikulua. Mankomunitatearen zerbitzuko langileak funtzionarioak, administrazio kontratadunak, lan kontratadun finko edo aldi baterakoak, eta behin-behineko langileak izanen dira, aplikatzeko den legeriak eta plantilla organikoak xedatutakoarekin bat.

VII. TITULUA

Kideen Elkarteratze eta Bereiztea

39. artikulua. Batzarreak definitutako arrazionaltasun eta berdintasun irizpideen arabera, eta betiere Nafarroako Gobernuak onartutako Sektoreko Planekin edo Plan Zuzentzaileekin bat, Mankomunitatearekin hala eskatzen duten udalak elkar daitezke.

40. artikulua. Udalen batek elkarteratze eskabidea aurkeztuz gero, ondoko izapidea bideratuko da:

Batzarrearen aldeko txostena, horretarako erabakia gehiengo absolutuaren botoaz hartu beharra dago.

Jakinarazpen publikoa 15 egun balioduneko epean.

Epe hori iragan eta gero, kontrako arrazoibiderik aurkeztu ez bada, elkartzea behin betirakotzat hartua izango da. Bestela bada, Batzarreak, quorum bera izanik, aurkeztutako iradokizun edo erreklamazioak garbitu beharko ditu behin betirako erabakia hartuz.

41. artikulua. 1. Aurreko artikuluan ezarritako prozeduraren agindupean, elkarturiko Entitateen bereiztea onartuko ahalko da. Horretarako, eskatzaileak zerbitzuak bidezko moduan burutu ahal dituelako berme zehatzak agertu beharko ditu, hala nola bere esparruko jarduerak egokiro egin, eta bere bereizteaz Mankomunitatearen interes orokorretarako kalterik ez dela sortzen agertu, bai eta honek zerbitzua egiten jarraitu ahal duela bermatu ere.

2. Batzarrearen erabakiak Mankomunitatea uzten duen Entitatearen eta Mankomunitatearen ondasun, eskubide eta betekizunen gainean bereizketak dituen eraginak zehaztuko ditu.

VIII. TITULUA

Estatutuen aldaketak eta Mankomunitatearen deuseztapena

42. artikulua. Estatutuen aldaketa legalki ezarritako arauen aginduen arabera izango da.

Aldaketaren helburua soil-soilik Mankomunitatearen antolamendua edo funtzionamendua indarra duen legalitateari egokitzea besterik ez denean, aski izanen da Batzarrearen onespina, batzarkideen gehiengo absolutuaren aldeko botoaz.

43. artikulua. Mankomunitatearen erabateko deuseztapenak Estatutuen aldaketarako beharrezkoa den izapide bera jarraitzea ekarriko du. Dena den, Batzarreak ezarriko ditu deuseztapenerako erabakiak ondorioztatutakoa, ondare, eskubide eta betekizunei dagokienez.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehendabizikoa.—Uraren Ziklo Integralaren eta Hiri Hondakin Solidoen egungo kudeaketa-organoei eta konstituzio erreglamenduei indarrean jarraituko dute, Batzarre Nagusiak haien deusezteza erabaki ezean. Uraren Ziklo Integralaren kudeaketarako Organo Berezia deusezteza erabakitzen bada, zerbitzu hori mankomunatua ez duten udalen izendaturiko Mankomunitateko Batzar Orokorreko ordezkariak ezin izanen dute parte hartu ez eta botorik eman ere zerbitzu hori buruzko gaietan. Erabakiak hartzeko beharrezko quoruma osatuko da Mankomunitateko gainontzeko udalen ordezkari kopuruari jarraituz.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehendabizikoa.—Estatutu hauek behin betiko onetsi ondoren, Mankomunitateak beren garapena onetsi ahal du dagokion Arautegi Organiko eta bestelako xedapen administratiibo bidez.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Bakarra.—Batzarre Nagusiak, 1989ko otsailaren 23ko bilkuran onetsitako Sakanako Eskualderako Plangintza Orokorreko Mankomunitatearen Estatutuak indargabetzen dira.

Estatutu hauek Batzarre Nagusiak onetsi zituen 2.002ko azaroaren hogeita zortzian. Idazkaria, sinadura ulertezina

A0303568

L E R G A

Jarduteko eta irekitzeko lizentziaren tasa arautzen duen ordenantza

Urtarrilaren 29an, 2003ko 13. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen Jarduteko eta irekitzeko lizentziaren tasa arautzen duen ordenantzaren hasierako onespeneraren iragarkia, eta jendaurrean egon bitartean inork ez du alegaziorik batere aurkeztu.

Beraz, bidezko da ordenantzaren testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Lergan, bi mila eta hiruko apirilaren lehenean. Alkatea, Sagrario Zabala Zabalegui.

JARDUTEKO ETA IREKITZEKO LIZENTZIAREN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Oinarria

1. artikulua. Ordenantza hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan eta 2/1995 Foru Legea eta 6/1990 Foru Legea aldatzen dituen martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legean ezarritakoaren babesean.

Zergagaitza

2. art. 1. Ordainarazpen honen xedea izanen da zerbitzu tekniko eta administratiiboak ematea edozein jardueratan aritzeko behar den jarduteko eta irekitzeko lizentzia eman aitzin.

2. Ordainarazpen honi dagokionez, haren subjektutzat hartuko dira:

- Berritik ematen diren establezimenduak.
- Lekualdaketak eta titulatasun aldaketak.

c) Abian den jarduera handitzeak eskubide berriak ordaintzea ekarriko du, eta horien etorkia handitzea baizik ez da izanen, eta betiere udal zerbitzuak berriz ere aritzea beharrezkoa bada handitzea bideragarria izan dadin.

Salbuespenak

3. art. Ez da salbuespenik eginen ordainarazpen honi dagokionez.

Subjektu pasiboa

4. art. Subjektu pasiboak dira Ordenantza fiskal orokorraren 8. artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko, juridiko eta entitateak.

Zerga oinarria

5. art. Tarifa hauek aplikatuko dira:

—Jarduera lizentzia emateko:

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren oinarriaren % 1.
- Irekitzeko lizentzia emateko:

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren oinarriaren % 1.

6. art. 1. Honekakoetan ez da tasa ordaindu beharko, baina dagokien lizentzia eskuratu beharko da:

a) Behin-behineko larrialdi batek bultzaturiko lekualdaketak, lokalatan obrak egin behar izateagatik, betiere behar diren lizentziak eskuratu badira.

b) Nahitaezko eraispenek, behera etortzeek eta suteek behaturiko lekualdaketak edo agindu eta xedapen ofizialak betez egin behar direnak.

c) Titularren aldaketak "mortis causa" ondorengotzagatik, hura senar-emazteen artean izan edo aurretikoen nahiz ondokoen artean izan, betiere kausatzaileari lizentzia eman zitzaionetik hogeita hamar urte iragan ez badira.

d) Sozietate ez anonimoen helbide sozialaren aldaketa, kideren bat hiltzeagatik.

e) Senar-emazteen arteko eskualdaketak.

2.—Aurreko zenbakiko a) atalak ezarri bezala ordaindu beharrik ez izatea jatorrizko lokalaren berriz ere irekitzen denean ere gertatuko da, hura moldatu edo berreraikitakoan.

3.—b) atalari dagokionez, jatorrizko lokalarengatik ere ez da ordaindu beharko, hura berreraikitakoan, ezta horren ordeko lokal berriarengatik ere, betiere titularrak kalte-ordainik batere jaso ez badu jatorrizko lokalatik ateratzeagatik.

4.—Aurreko bi zenbakietan ezarri bezala ordaindu beharrik ez izateko, bietarako baldintzak izanen dira berriz ere irekitzen den lokalak jatorrizkoaren azalera bera edo tikiagoa izatea eta bere hartan jarduera bera egitea.

Sortzapena

7. art. Tasa sortzen da eta ordaindu beharra dago zergagaitza den udal jarduera hasten den unean.

Arau-haustea eta zehapenak.

8. art. Tributu arloko arau-hausteei eta horiek kasu bakoitzean ekartzen dituzten zehapenei dagokien guztietan, indarra duen legeriari jarraituko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehendabizikoa.—Ordenantza honetan aurreikusia ez dagoen guztian, Ordenantza fiskal orokorreko xedapenei jarraituko zaie, bai eta martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari, martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legeari nahiz aplikatzeak diren gainerako xedapenei ere.

Bigarrena.–Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoan hartuko du indarra eta halaberean sortuko ondorio juridiko osoak.

A0303592

ZIZUR NAGUSIA

Gaztetxearen funtzionamenduari buruzko arautegiaren behin betiko onespina

2003ko martxoaren 26an Zizur Nagusiko Udalbatzak egindako osoko bilkuran Gaztetxearen arautegiari dagokion espedientea behin betiko onartu ondoren, legeak dioen bezala, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN arautegi honen edukia argitaratzen da.

ZIZUR NAGUSIKO GAZTETXEAREN ARAUTEGIA

1. Gaztetxea Udalaren ondasuna da, jabari eta zerbitzu publikokoa. Nagusiki aisialdiko jarduerak egitera dago zuzendua, Zizur Nagusiko haur-gazteen artean, eta, egoeraren arabera, aipatu ez diren beste jarduerak batzuk ere egin ahal izanen dira, eta horiek Udal Organo Eskudunak baimendu beharko ditu aurretik.

2. Instalazio horren funtzionamenduari erregulazioa Zizur Nagusiko Udal Txit Gorenari dagokio, Hiritarrentzako Zerbitzuen Udal Batzordearen bidez.

3. Zizur Nagusiko Udala, Gizarte Zerbitzuetako Arloaren eta talde kudeatzailearen bidez, arduratuko da jardueren funtzionamenduaz, zaintza eta koordinazioaz, baita instalazioak hornitzeaz, zaintzeaz eta hobetzeaz ere.

4. Zizur Nagusiko Udalak partikularrekin edo erakundeekin kontratuak formalizatu ahal izanen ditu instalazioen erabilera eta kudeaketa erregulatzeko, haren erabilera jarrai edo luze baterako.

5. Udalak finkatuko du Gaztetxearen erabilera publikorako ordutegia, Gizarte Zerbitzuetako Arloaren eta talde kudeatzailearen bidez, langileen ahalen arabera eta dauden beharrak kontuan hartuz.

6. Udalak, bere izenean edo Gizarte Zerbitzuetako Arloaren eta talde kudeatzailearen bidez, beretako gordeko du eskubidea egoki ez diren jokabideak dituzten pertsonak ohartarazteko edo baita instalazioetatik kanporatzeko ere.

7. Debekatua dago Gaztetxearen barnean edonolako substantzia estupefaziante edo alkohola edukitzea eta kontsumitzea.

8. Erabiltzaileen eskubideak:

– Begirunez eta duinki tratatua izatea.

– Gaztetxea erabiltzea, haren ondasunei eta zerbitzuei onura ateraz.

– Informazioa eta aholkularitza eskatzea, bai jardueri buruz bai kezkei, zalantzei, arazoei... buruz ere, taldeka zein banaka.

9. Erabiltzaileen betebeharrak:

– Gaztetxean dauden langileak eta erabiltzaileak errespetatzea, horiek duinki tratatuz.

– Gaztetxeko ondasunak eta zerbitzuak zuzen erabiltzea, ondasunak (altzariak, materialak, e.a.) zein lokala bera errespetatuz.

Arestian azaldutakoa betetzen ez bada, Gaztetxeko talde kudeatzaileak une horretan egokituz jotzen dituen neurriak hartuko ditu, eta gero horren berri emanen dio Gizarte Zerbitzuetako Arloari, eta beharrezkoa balitz Udal Organo Eskudunari.

10. Eremuen erabilera:

I.–Gela bat erabiltzeko, eremu irekietan izan ezik, beharrezkoa izanen da Jardueretarako instantzia delako eskaera betetzea eta zenbait baldintza orokor betetzea, baldin eta horrelakorik badago zenbait lagapenerako (adina, parte hartzaile kopurua, kuota...). Gela eta hartan eskatzen ahal den zernahi material mailegatzea edo ez erabakiko du talde kudeatzaileak. Arau orokor gisa, hasiera batean, ontzat hartuko dira Zizur Nagusiko irabazi-asmorik gabeko talde, kolektibo edo bana-koek egindako eskaera guztiak.

II.–Jarduera bukatuta, haren erantzule den edo diren pertsonak instalazioak eta erabili ahal izan den materiala egoera onean gelditzeaz arduratuko dira, jarduera hasi aurretik zeuden baldintza beretan.

Ezohiko izaeraz eta gerta litezkeen zenbait egoeraren arabera, Gaztetxearen Talde Kudeatzaileak Gaztetxearen funtzionamenduari dagokion erabakiren bat erabaki dezake, ahalik eta denbora laburren horren berri emanez Gizarte Zerbitzuen Arloari, eta beharrezkoa balitz, udal organo eskudunari.

Zehapen prozedura

Arau orokor gisa, zehapen prozedura honela egituratuko da:

Hutsegite arina:

Hutsegite arintzat hartuko dira udalaren materialean edo altzarietan kalteak eragiten dituzten edo eragiten ahal dituzten ekintza edo jokabide desegokiak.

Pertsonenganako noizbehinkako errespetu falta, bai erabiltzaileen-ganakoak, bai Zentroko profesionalenganakoak ere, hutsegite arinen artean kokatuko dira. Arau orokor gisa, pertsonenganako errespetu faltan kasuan, zehapena gauzatu aurretik elkarrizketaren bitartez konpontzeko saiakera egingen da, pertsonen aldetik horretarako jarrera baldin badago.

Egun berean gehienez ere bitan gertatzen bada, zehapena abisu edo ohartarazpen moduan gauzatu da.

Hutsegite larria:

Hutsegite larritzat hartuko dira lokalaren barnean substantzia estupefazianteak kontsumitzea, baita egun berean hiru hutsegite arin izatea ere.

Egun horretan lokaletik kanporatua izanez gauzatu da zigorra, eta izatekotan, kontraprestazio bat agindu ahal izanen da kanporatzearen neurri alternatibo gisa.

Hutsegite oso larria:

Hutsegite oso larritzat hartuko dira: huts larriak behin eta berriz eta denboran jarraian egitea, hala nola udalaren materialean edo altzarietan eragiten diren kalteak, erabilera makurratigatik, horiek behar ez bezala erabiltzeagatik, edo nahita egiteagatik edota hutsegite arinek eta larriek sortzen dituztenak baino maila handiagoan eragiteagatik.

Gertaera horien erantzuleak edo erantzuleek izanen dute horiei aurre egiteko ardura, bai ekonomikoki, bai nolabaiteko kontraprestazioen baten bidez. Arduradunek eta talde kudeatzaileak egingen dute balorazio hori, eta informazio hori Gizarte Zerbitzuetako Arloari emanen diote, eta, beharrezkoa balitz, udal organo eskudunari.

Halaber, pertsonen kontrako errespetu falta errepikatuak, mehatxuak edota eraso fisikoak, bai erabiltzaileei, bai Zentroko profesionaliei, hutsegite oso larrien artean kokatuko dira.

Denbora baterako lokaletik kanporatzearekin gauzatu ahal izanen dira hutsegite oso larriak. Kanporatze hori gutxienez egun batekoa izanen da, eta gehienekoa udal organo eskudunak zehaztu beharko du.

Argitara ematen da orok jakin dezan, Zizur Nagusian, bi mila eta hiruro apirilaren bian. Alkatea, Luis María Iriarte Larunbe.

A0303569

ARMAÑANTZAS

EDIKTUA

Armañantzasko Herritarren Batzarreak, 2002ko urriaren 31n egin bilkuran, hasiera batez onetsi zituen Armañantzasko Udalaren Ordenantza fiskal orokorra eta lbigailuen errodateje eta herrestatze tasa arautzen duen ordenantza fiskala.

Espedientea jendaurrean egon da hogeita hamar egunez, iragarkia argitara eman baitzen herriko iragarkien ohelean eta 2003ko 1. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, urtarrilaren 1ekoan, baina inork ez du denbora horretan haren aurkako erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 325. artikuluan ezarritakoa betez, Herritarren Batzarreak 2003ko otsailaren 27an egindako bilkuran behin betikoz onetsi zituen ondotik ematen diren ordenantzak.

Aditza ematen da orok jakin dezan, Armañantzasen, bi mila eta hiruro martxoaren hamaikan. Alkatea, sinadura ulertezina.

ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

Oinarria

Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak (1995eko martxoaren 20ko 36. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN) xedatzen duenari jarraikiz ezarri da.

I. KAPITULUA

Oinarri orokorrak

1. artikulua. Honako ordenantza fiskal orokor honen xedea da Udal honetako zerga araubidea osatzen duten ordainarazpen guztiendako arauak eta oinarri orokorrak finkatzea.

Ordenantza honen arauak ordenantza partikularren osagarritzat hartuko dira, azken horiek berariaz arautzen ez duten guztian.

2. art. Tokian tokiko ordenantza fiskalek eta honako honek ere agintzen duten bezala, zergak ordaintzeko obligazioa guztiena da, eta zerga-eskubide eta betebeharrak izan ditzaketen pertsona fisiko eta juridiko guztiak edo nortasun juridikorik gabeko subjektuak hartzen ditu bere esparruan, betiere, berdintasun eta ahalmen ekonomikoaren oinarriak aintzat hartuz (2/1995 Foru Legearen 56.a artikulua).

3. art. Armañantzasko Udalak onetsitako ordenantza fiskalek Udaleko mugape osoan izanen dute indarra, eta ezin izanen da kargarik ezarri entitate zerga-ordainarazlearen lurraldetik kanpo egindako negozio, egintza edo gertaerengatik (2/1995 Foru Legearen 56.b artikulua).